



Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts betetzekoa.

Lehen proba teorikoaren behin betiko emaitzak eta bigarren proba teorikoa egiteko eguna eta tokia.

1.- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts txanda irekian eta oposizio-lehiaketa bidez betetzeko enplegu-egonkortze deialdi salbuespenezkoaren 6.3.3 eta 6.3.5 oinarriek ezarritakoari jarraikiz, Nafarroako Parlamentuaren iragarki-oholean eta web-orrian argitara bitez lehen proba teorikoaren irakurketa publikoaren behin betiko emaitzak, puntuazio-hurrenkeran zerrendatuta. Aipatu irakurketa 2023ko apirilaren 20an egin zen, Nafarroako Parlamentuan.

	PUNTUAZIOA, GUZTIRA
ORDOKI GUARCH, IGNACIO	13,20
CAÑAS PALACIOS, ISABEL	12,42
LAURENZ ITOIZ, MIGUEL ÁNGEL	12,05
VIDAURRETA DE LA CRUZ, MIGUEL	7,65
IRIARTE AMIGOT, MIREN NEKANE	EZ DU GAINDITU
MENA GARCÍA, TOMÁS	EZ DU GAINDITU
CIAURRIZ JIMÉNEZ, ANDER	EZ DU GAINDITU

2.- Lehen proba gainditu duten izangaiei dei egiten zaie bigarren proba egitera, zeina 2023ko maiatzaren 31n izanen baita, asteazkenez, 10:00etan, Nafarroako Parlamentuko 1. Batzorde Aretoan.

3.- Bigarren proba teorikoaren irakurketa publikoa 2023ko ekainaren 1ean egingen da, ostegunez, 10:00etan, Parlamentuaren egoitzako 1. solairuko Baluarte bilera-aretoan (Navas de Tolosa kalea, 1, Iruña).

4. Agintzen da erabaki hau Nafarroako Parlamentuaren web-orrian eta iragarki-oholean argitara dadin.

Iruñean, 2023ko maiatzaren 2an